

EAEko hezkuntza publikoko irakasleen akordio arautzaile (lan hitzarmena) berria eta plantillak esleitzeko irizpideen akordioa.

2025eko maiatza



LAB

EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA



Aurkibidea

SARRERA.....	2
HITZARMENA	4
1. LAN ZAMA ARINTZEKO NEURRIAK.....	4
2. GAZTEBERRITZE PLANA	4
3. EROSAHALMENA.....	5
4. ENPLEGUA EGONKORTU ETA BERMATZEA	5
5. ORDEZKOEN LAN BALDINTZAK HOBETZEA	6
6. LIZENTZIAK ETA BAIMENAK.....	7
7. LAN OSASUNA, BERDINTASUNA ETA EUSKARA PLANAK.....	7
7.1. Lan osasuna	7
7.2. Berdintasun plana	8
7.3. Euskara plana.....	8
8. BESTELAKOAK	9
9. PLANTILLAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.....	10



Urrats sendoa irakasleen lan baldintzak eta hezkuntza publikoa indartzeko; hezkuntza kalitatea hobetzeko

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako irakasleen hitzarmena berritu eta hobetzera iritsi zen LAB 2025eko maiatzaren 9an, gehiengo zabalarekin batera (%80ko ordezkaritza), urteetan egindako lanaren ondorioz eta urtarrilean abiatutako 9 greba egun eta hamaika mobilizaziotan irakasleek erakutsitako indarrari eta konpromisoari esker. Era berean, 2022ko maiatzaren 26an Plantillak Esleitzeko Irizpideen akordioan lortutakoaren bidetik, akordioa bera indartu eta hobetzea lortu genuen.

Izan ere, 2022ko maiatzaren 26an LABek sinatutako Plantillak Esleitzeko Irizpideei buruzko akordioaren bidez, oinarri garrantzitsuak jarri ziren: ratioen jaitsiera etapa guztietan ikasle-taldeak osatzean; Hezkuntza Konplexutasun Indize altu eta oso altuko ikastetxeetako errealitateei erantzuteko ratio txikiagoei loturiko baliabide gehigarriak eta neurri bereziak eskuratzea; aniztasunari erantzuteko Pedagogia Terapeutikoko plaza egonkorrak eta aholkulariak zein orientatzaileak txertatzea; zuzendaritza taldeentzako ordu gehigarriak aitortzea; berrikuntza eta prestakuntza proiektuen koordinatzaileen figura sortu eta ezartzea (BeA figurak); baita datozen ikasturteetan txertatuko diren IKT teknikarien eta administrari laguntzaileen plazak ere.

Bestalde, LABek Hezkuntza Sailarekin hezkuntza komunitateko langile guztien lan baldintzak hobetzeko akordio laborala sinatu zuen 2023ko ekainaren 1ean. Bertan, hainbat neurri jaso ziren, eta, ondoren, eremu bakoitzean egin beharreko negoziazioetarako oinarriak jarri zituen LABek. Gainontzeko kolektiboetan bezala, irakasleetan ere mahai negoziatzaileak izatea ahalbidetu zuen akordio laboralak, eta akordio arautzailean LABentzat historikoak izan diren aldarrikapenak txertatzea lortu dugu; esaterako, oposaketak 3 urteko zikloetan egitea, oposaketa eredu berri bat negoziatzea, oposaketetarako materiala Hezkuntza Sailak euskaraz eta dohainik eskuragarri jartzea eta bitartekotasun-tasa %5etik behera kokatzea.

2025eko maiatzaren 9ra itzuliz, LABentzat lehentasunezkoak ziren edukiez gain, hezkuntza publikoa indartu eta hezkuntza kalitatea hobetzeko baliabideak lortu dira, LABek ezinbestekotzat

jotzen zituenak. Izan ere, aniztasunari erantzutea, hezkidetzan aurrera pausak ematea edota euskara indartzea, estrategikoak izateaz gain, ikastetxeetako errealitateei aurre egiteko behar-beharrezkotzat ditu LABek. Gainera, lan zama arindu eta ehunka lanpostu sortuko dira.

Sinatutako akordioa orain arte egin-dako bidean urrats sendo bat gehiago izan da LABentzat, irakasleen lan baldintzak hobetu eta hezkuntza publikoa indartzeko; finean, hezkuntza kalitatea hobetzeko. Hala ere, LABek borrokan jarraituko du azken helburua Euskal Eskola Publiko Komunitarioa delako, sare publiko bakar deszentralizatuan antolaturiko hezkuntza sistema burujabea, euskalduntzean eta Euskal Curriculumean, inklusioan eta aniztasunean, pedagogia feministan, laikotasunean, kritikotasunean eta langileon lan baldintza duinetan oinarriturik egongo dena.



HITZARMENA:

2028ko abuztuaren 31ra arteko indarraldia izango du akordio arautzaileak (lan hitzarmenak).

1. LAN ZAMA ARINTZEKO NEURRIAK

> Ordu lektiboen jaitsiera (26. artikulua)

Murritzten diren orduak norberaren irakaskuntza prozeduren hobekuntzarako erabiliko dira.

Haur eta Lehen Hezkuntza:

- 23 ordu lektiboetatik 21 izatera igaroko dira; 2025/26 ikasturtean 22ra murriztuko dira eta 2026/27 ikasturtean 21era.

Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa:

- 2025/26 ikasturtean 17 ordu lektibo izatera pasako dira, Hedatze eta analogoak diren programak barne.
- Era berean, esparruka, proiektuka eta ikasgelan berrikuntza proiektuetan lan egin duten Bigarren Hezkuntzako, araubide bereziko eta Lanbide Heziketako irakasleentzako irakaskuntza orduen murrizketak jasoko dira. Murrizketa horiek gutxienek irakastordu batekoak izango dira.
- Lanbide Heziketako irakasleek malgutasuna izango dute ikasturtean zehar egin beharreko eskola orduetako dagokienez eta ikastetxean egon beharreko ordu presentzialen banaketa zehazteari dagokionez, ikastetxeko zuzendaritzarekin adostuta.

> Desburokratizazioa (26.e artikulua)

2025-26 ikasturtetik aurrera, irakasleen eguneroko lan-karga osagarria areagotzen duten izapide guztiak kendu, sinplifikatu eta berrantolatu egingo dira.

2. GAZTEBERRITZE PLANA

> 3. Adinagatik lanaldia murriztea (55. artikulua)

60 urtetik erretirora arte lanaldia murriztu eta metatzeko aukera jasotzen da. 60 urtetik 65 bitarte jardunaldia herenean murrizteko aukera jasotzen da etapa guztietan, baita ikasturte bakoitzeko 4 hilabete metatzeko ere; 65 urtetik aurrera, aldiz, lanaldia jardunaldi erdiz murriztu ahal izango da. Orotara, 18 hilabete metatu eta 16 hilabete etxean igaro ahal izango dituzte irakasleek. Orain arte bezala, Haur eta Lehen Hezkuntzan 59 urtetik aurrera 2 orduko murrizketa hartu ahal izango dute, eta horiek metatzeko aukera izango dute (3 hilabete); ikastetxean edukien transmisiorako erabiliko dira.



3. EROSAHALMENA

> Soldata (67. artikulua)

15 urteren ondoren, lehendabizikoz soldata hemen erabakitzea eta datozen hiru ikasurteetan %7ko igoerak ezartzea lortu da, %2 2025/26an, %2,5 2026/27an eta %2,5 2027/28an.

> Zuzendaritza-karguak (68. artikulua)

Zuzendaritza-karguetan dauden irakasleek %30eko igoera izango dute.

> Kargu akademikoak (69. artikulua)

BeA figurek, aholkulariek eta orientatzaileek kargu akademikoak jasoko dituzte. Bestalde, jardunaldi murritzuan dauden irakasleek kargu akademikoak osorik jasoko dituzte.

4. ENPLEGUA EGONKORTU ETA BERMATZEA

> Enplegua hobetzeko neurriak (8. artikulua)

2023ko ekainaren 1ean LABek Hezkuntza Sailarekin sinatutako akordio laboraletik eratorritako ondorengo aldarrikapen historikoak jaso dira 2025eko akordio arautzailean: behin-behinekotasun tasa %5etik behera kokatuko da; oposaketak hiru urteko zikloetan egingo dira; gaitegiak, Hezkuntza Sailak eguneratu eta euskaraz izateaz gain, doakoak izango dira; eta EPE eredu berri bat negoziatuko da. Era berean, lanpostu guztiek C1 hizkuntza eskakizuna izango dute.

> Irakasle Teknikoak (16.3 artikulua)

Bigarren Hezkuntzan integratu ez diren Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak hezkuntzan mantenduko dira. Izan ere, 10 urtez zerrendetan jarraitu ahal izango dute (2035/36ra arte) eta epe hori iristean, irakasle horiek 15 urteko eskola-zerbitzua eman dituzten langileen baldintza berberetan egongo dira zerrendetan.

5. ORDEZKOEN LAN BALDINTZAK HOBETZEA

> Lan baldintzak parekatzea (17. artikulua)

LABek historikoki defendatu du irakasle ororen lan baldintzak parekatzea. Bide horretan, bitarteko irakasleen lizentziak eta baimenak karrerako funtzionarioenekin parekatuko dira legeak ahalbidetzen duen kasu guztietan.

> Bakantedunek eskubide eta betebeharrak berdinak (17. artikulua)

Ordezko irakasle batek ikasturte amaiera arteko iraupena duen lanpostua badu, karrerako funtzionarioen eskubide eta betebeharrak berdinak ditu. Izaera hori izango dute irailaren 30a baino lehenago hartutako lanpostuek. Erretiroek lanpostu hutsen (bakan-teen) izaera izango dute.

> Urte sabatikoa (53. artikulua)

Urte sabatikoa hartzeko aukera zabalduko zaie aurreko bost urteetan ikasturte osoko plaza bat lortu duten bitarteko langileei.

> Udako kibraketa (19. artikulua)

Uda kibratu, kotizatu eta puntuatu egingo da 2025/26 ikasturtetik 165 egun edo gehiago kontratupean egonez gero.

> Jarduketa-plan espezifikoak (16.2 artikulua)

Hezkuntza publikoan zerbitzua 15 urtez jarraian edo 20 urtez ez jarraian eman duten 55 urtetik gorako ordezkotako irakasleek aukeratutako lurraldean zerbitzu aktiboan jarraituko dute.

> Lanpostuak gordetzea (13.2 artikulua)

Irailaren 1ean bajaran dagoenari edo beste arrazoi batzuegatik jabetza hartu ezin duten lanpostuak azaroaren 30era arte gordeko zaie.

> Kontraturik ez etetea (18. artikulua)

Titularrak aldi baterako ezintasun egoeran jarraitzen duen bitartean, ordezkotari ez zaio kontratua etengo.

> Eguna kibratu eta puntuatzea (18. artikulua)

Administrazioaren erruz ordezkotako ikastetxera iristean titularrak bertan badago, kibratu eta puntuatu egingo du.

6. LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

2025eko maiatzaren 12tik aurrera ezarri ziren adostutako lizentzia eta baimen guztiak.

> Gurasotasuna (32.A. art.)

Derrigorrezkoak ez diren asteak jarraian hartuz gero, 2 aste gehiago, iraungo du baimenak.

> Edoskitzea (32.A. art.):

Jardunaldia	2010	2025
Osoa: %100	24 lanegun	28 lanegun
Murritzua: %83,33		29 lanegun
Murritzua: %66,67		36 lanegun
Murritzua: %50		48 lanegun
Murritzua: %33,33		72 lanegun

> Urgentziazko baimena (42. art.)

Adin txikiko seme-alaben medikuen kontsultarako edo larrialdietara laguntzeko 4 orduko baimena.

> Egonaldiak gauarekin konpentsatzea (52. art.)

Egun eta erdiko konpentsazioa pernokta-egun bakoitzeko, eta bi egunekoa jai egunean gertatzen bada. Ekainean ikasle gabeko egunetan berreskuratuko da.

> Familia-arrazoi larriengatiko baimena (54. bis)

Langileak eskubidea izango du lanetik alde egiteko ezinbesteko kasuetan, senideekin edo bizikideekin lotutako premiazko familia-arrazoiengatik beharrezkoa denean, gaixotasuna edo istripua dela-eta berehala joan behar denean.

> Norberaren interesagatiko lanaldi-murrizketa (55.2 artikulua)

Eskatutako murrizketa lanaldi erdikoa bada, metatuta hartu ahal izango da, bost hila-beteko aldian. Hau da, lanaldi osoan lan egingo dute irailaren 1etik urtarrilaren 31ra edo otsailaren 1etik ekainaren 30era. Ordainsari guztien erdia jasoko dute ikasturteko hamabi hilabeteetan.

7. LAN OSASUNA, BERDINTASUNA ETA EUSKARA PLANAK

7.1. Lan osasuna

> Osasuna eta segurtasuna (75. artikulua)

Hezkuntza Sailak prestakuntza jarduerak sustatuko ditu osasun sozioemozionala zaintzeko. Horretarako, partida ekonomiko espezifikoak izango du jarduera kolektiboak garatzeko, arreta indibiduala emateko beharrezkoa dela erabakitzen den kasuetan.

> **Lanpostua egokitzeko protokoloa (76. artikulua)**

Osasun premiak kontutan hartuko dira irakasle guztien behin betiko edo behin-behineko destinoko funtzioak betetzeko.

> **Lanpostuz aldatzeko protokoloa (77. artikulua)**

Ezintasuna ukatu zaien baina lanpostura itzultzeko gaitasunik ez duten langileak euren osasun-egoerara egokitzen den lanpostu batera aldatu ahalko dira. Salbuespen gisa, irakaskuntza-karga murriztu ahal izango da.

> **Osasun azterketak (78. artikulua)**

2025-26 ikasturtetik aurrera, prozedura bat ezarriko da gutxienez 3 urtean behin osasun azterketa egiteko.

7.2. Berdintasun plana

> **Genero berdintasunerako neurriak (80. artikulua)**

Berdintasunerako Jarraipen Batzordea sortu da:

- a) Emakumeari buruzko lege-arauak eta gomendioak, berdintasun planak, akordioak, eta abar betetzen direla zaintzeko, tratu-desberdintasunak desagerrarazteko, diskriminazio-egoerarik ez dagoela egiaztatzeko eta ekintza positiboko neurriak aplikatzen direla bermatzeko.
- b) Emakumearen bereizkeriarekin, lan baldintzekin, emakumeak zuzendaritza eta erabaki-organoetan duen presentziarekin eta abarrekin zerikusia duten arazo eta gaiei buruzko txostenak egiteko.

> **LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko neurriak (81. artikulua)**

LGTBI pertsonen eskubideen aldeko plana jasoko da. Hezkuntza Sailak protokoloa garatuko du. Jazarpen egoera baten aurrean eman beharreko pausoen deskribapen zehatz eta argia azalduko du, eta prebentzio goiztiarra sustatuko du. Babes osoa eskainiko dio jazarria izan den pertsonari.

7.3. Euskara plana

> **Irakasleen hizkuntza gaitasuna hobetzeko prestakuntza (73. artikulua)**

Irakasleak hizkuntzan eta metodologian gaitzea bultzatuko da, euskal kultura transmititzeko gaitasuna barne. Besteak beste, irakasleak prestatzeko eta hobetzeko plan bat egingo da, eta euskarazko C2 maila lortzeko prestakuntza sustatuko da.

8. BESTELAKOAK:

> Lanpostu zerrendak (8. artikulua)

Sindikatuekin negoziatuko dira.

> Lekualdatze lehiaketa (9.1 artikulua)

Plazen eskaintza sindikatuekin negoziatuko da, eta txandaka egiteko aukera aztertuko da.

> Ikasturte hasierako esleipena (IKHA/COCU) (13. artikulua)

Esleipen-prozesua abuztua baino lehen amaituko da, eta ebazpena sindikatuekin negoziatu eta adostuko da.

> III. Eranskina (16.1 artikulua)

Urtero ordezkoen araudiko III. Eranskina negoziatuko da.

> Jarraipen batzordea (21. artikulua)

Plantillak esleitzeko irizpideei buruzko jarraipen batzordea urtean bi aldiz bilduko da, gutxienez.

> Ebazpena, ikastetxe eta plangintza zuzendaritza eta plangintza eta antolaketa zuzendaritzarena (22. artikulua)

Sindikatuekin negoziatuko dira.



9. PLANTILLAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK:

> **Ratioak: 2027/28 ikasturtean ezarriko da Lehen Hezkuntzako 1. mailan**

- Lehen Hezkuntzan

	2022ko akordioan lortutakoa	2025eko akordioan lortutakoa
25 ikasle + ikasle errepikatzaileak	23 ikasle, ikasle errepikatzaileak barne	22 ikasle, ikasle errepikatzaileak barne

> **Aholkulariak eta orientatzaileak: 2025/26 ikasturtean ezarriko dira irizpideak.**

- Haur eta Lehen Hezkuntzan

2022ko akordioan lortutakoa		2025eko akordioan lortutakoa	
8 talde arte	0,5 lanaldi	6 talde arte	0,5 lanaldi
9-19 talde	1 lanaldi	7-12 talde	1 lanaldi
500-1.000 ikasle	2 lanaldi	13 taldetik aurrera	1,5 lanaldi
+1.000 ikasle	3 lanaldi	400 ikasle	2 lanaldi
		600 ikasle	2,5 lanaldi
		800 ikasle	3 lanaldi
		1.000 ikasle	4 lanaldi
		*HKI (Hezkuntza Konplexutasun Indizea): bigarren aholkularia 350 ikasletik aurrera, eta gainerako tarteetan proportzionalki esleituko dira.	

• Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan

2022an lortutako akordioa	2025ean lortutako akordioa
500 ikasletik gora 2 plaza	1-200 ikasle 1 lanaldi (17 ordu) 201-400 ikasle 1,5 lanaldi (25 ordu) 401-600 ikasle 2 lanaldi (34 ordu) 601-800 ikasle 2,5 lanaldi (42 ordu) *HKI (Hezkuntza Konplexutasun Indizea) eta Oinarrizko Lanbide Heziketan: bigarren orientatzailea 350 ikasletik aurrera, eta gainerako tarteetan proportzionalki esleituko dira.

> **HIPI eta EUSLE programak: 2025/26an etapa guztietan ezarriko dira irizpideak.**

	2022an lortutako akordioa	2025ean lortutako akordioa
HIPI	3 ikasleko 0,33 lanaldi	2-6 ikasle 0,5 lanaldi 7-12 ikasle 1 lanaldi 13-18 ikasle 1,5 lanaldi 19-24 ikasle 2 lanaldi 25-30 ikasle 2,5 lanaldi 6 ikasleko 0,5 lanaldi
EUSLE	LH4tik 2.DBHra	LH3tik 4.DBHra.

> **Ongizate eta babeserako koordinatzaileak: 2026/27 eta 2027/28 ikasturteetan ezarriko dira irizpideak.**

Haur eta Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntzan
20 talde arte 0,17 (5 lanordu)	4 talde arte asteen 2 ikastordu
21-40 talde 0,25 (7,5 lanordu)	5-8 talde asteen 4 ikastordu
41-50 talde 0,33 (10 lanordu)	9-12 talde asteen 5 ikastordu
51-60 talde 0,50 (15 lanordu)	13 -16 talde asteen 6 ikastordu
	17-20 talde asteen 7 ikastordu
	4 talde gehigarriko ordubete gehiago

> EHI (ALE) irakasleak: 2026/27 ikasturtean ezarriko dira irizpideak.

2022ko akordioan lortutakoa	2025ko akordioan lortutakoa	
	4-8 talde	0,5 lanaldi
	9-16 talde	lanaldi 1
	17-24 talde	1,5 lanaldi
	25-31 talde	2 lanaldi
	32-37 talde	2,5 lanaldi
	38-44 talde	3 lanaldi
	+45 talde	4 lanaldi

Lehen aldiz EHIak (ALEak) egonkorak izango dira irizpide horien arabera.

> **Hizkuntza proiektuetarako koordinatzaileak:** 2025/26an pilotajea HKI altu edo oso altuko ikastetxeetan (10 gutxienez), 2026/27an HKI altu edo oso altuko ikastetxe guztietan, eta 2027/28an zentro guztietan. Honako irizpideen arabera esleituko dira figurak:

HKI altu edo oso altuko ikastetxeetan		Gainerako ikastetxeetan
15 talde arte	0,5 jardunaldi	- Euskarazko hizkuntza gaitasunaren ikastetxearen barne-ebaluazioko emaitzak
16 taldetik aurrera	jardunaldi 1	- Ikastetxeak euskarazko hizkuntza gaitasunaren ebaluazioan egindako ebaluazio diagnostikoaren emaitzak
		- Testuinguru soziolinguistikoa
		- Talde kopurua
		- Ikasle kopurua

> **Zuzendaritza-taldeak:** 2027/28 ikasturtean ezarriko dira irizpideak.

- Haur eta Lehen Hezkuntzan.

2022ko akordioan lortutakoa		2025eko akordioan lortutakoa	
8 talde arte	0,5 lanaldi	8 talde arte	0,5 lanaldi
9-19 talde	1 lanaldi	9-14 talde	1 lanaldi
20-29 talde	2 lanaldi	15-19 talde	1,5 lanaldi
30-59 talde	3 lanaldi	20-24 talde	2 lanaldi
+60 talde	4 lanaldi	25-29 talde	2,5 lanaldi
		30-45 talde	3 lanaldi
		46-59 talde	3,5 lanaldi
		+60 talde	4 lanaldi

- Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan.

2022ko akordioan lortutakoa	2025eko akordioan lortutakoa
15 talde arte 2 lanaldi	12 talde arte 2 lanaldi
+0,33 etapa gehigarri bakoitzeko	+0,33 lerro gehigarri bakoitzeko
+0,33 talde gehigarri bakoitzeko	+0,33 etapa gehigarri bakoitzeko

Eskola publikoa hezkuntza sistemaren ardatza izan dadin lanean jarraituko dugu, Euskal Eskola Publiko Komunitarioa helburu: sare publiko bakar deszentralizatuan antolaturiko hezkuntza sistema burujabea, euskalduntzean eta Euskal Curriculumean, inklusioan eta aniztasunean, pedagogia feministan, laikotasunean, kritikotasunean eta langileon lan baldintza duinetan oinarritua.

Borrokak merezi du!

Bertsio digitala, hemen:



LAB⁷
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA